



ADIMEN-GAITASUN HANDIKO IKASLEAK IDENTIFIKATZEKO PROTOKOLOA
PROTOCOLO DE IDENTIFICACIÓN DEL ALUMNADO CON ALTAS CAPACIDADES INTELECTUALES

IVb. ERANSKINA | ANEXO IVb

ADIMEN-GAITASUN HANDIEN EZAUGARRIEI
LOTUTAKO ADIERAZLEAK

1. ESPARRU KOGNITIBOARI LOTUTAKO ADIERAZLEAK

1.1. Hizkuntza egokia eta zehatza erabiltzen du, eta hiztegi zabala eta aberatsa du.

1.2. Ideiak erraz lotzen ditu, eta arlo batean eskuratutako ezagutzak beste batean aplikatzen ditu.

Irakasgai batean ikasitakoa erabiltzen du beste batean egindako lanak aberasteko. Ezagutzaren osotasuna topatu eta ikasitakoa beste irakasgai batzuetara bideratzen du. Bizkor lotzen ditu irakasgai ugaritako ikaskuntzak eta, aukera emanez gero, eskolako ikaskuntzak lotzen ditu, eta gaurkotasuneko egoerekin eta/edo errealitatearekin erlazionatzen ditu.

1.3. Beste pertsona batzuek ikusten ez dituzten arazoez konturatzeko gai da.

Jardueretan egon daitezkeen akatsak, testuetako okerrak, zehaztugabetasunak eta abarrak detektatzen ditu.

1.4. Goi-mailako hizkuntza-baliabideak eta baliabide matematikoak erabiltzen ditu.

1.5. Ohar zorrotzak eta sakonak egiten ditu.

Ekarpen edo iruzkin bitxiak egiten ditu, ikasgelan landutakoaren inguruko xehetasun zehatzak barneratu dituela agertzen du eta bere iruzkinek sakontasun handia izan dezakete edo, batzuetan, landutakoarekiko aldenduta daudela eman dezakete (baina ez da hala izaten bere iritziaren arabera).

1.6. Kostatu egiten zaio zereginak uztea kontzentratuta dagoenean.

Eskatutako lana uztea atzeratu egiten du; lana amaitzeko esanez emandako agindua ez duela entzun dirudi. Segundo, minutu... batzuk uzteko eskatzen du. Denbora gehiago uztea behar izateko arrazoia ematen du. Haserre agertzen da eten eta aurrera jarraitzea uzten ez bazaio.

1.7. Oso adi egoten da jarduera berriak eta aurkikuntzakoak proposatzen dizkiotenean, eta arreta-maila txikiagoa agertzen du jarduera sinple eta errepikakorretan.

Gogo handia agertzen du ohikoarekiko ezberdina eta irekia den eta esperimentazioa eta ikerketa eskatzen dituen lanen bat aurkezten denean gelan. Lan errepikakorrak egiten dituenean, interes gutxi edo axolagabekeria erakusten du edo ohiko okerrak egiten ditu.

2. IKASTEKO ESTRATEGIEI LOTUTAKO ADIERAZLEAK

2.1. Problemak erronka gisa ulertzen ditu, eta grina handia agertzen du haiek ebazteko.

Erraz ebazten ditu matematikako problemak. Ebazpen konplexuak eskatzen dituzten jarduerak gustatzen zaizkio (asmakizunak, enigmak, dilemak lantzea, arrastoetan oinarritutako lanak...).

2.2. Oso ongi kontatzen ditu istorioak, eta etorri handia du.

Koherentzia eta kohesioa izaten dituzte bere kontakizunek. Xehetasun ugari, hiztegi zehatza eta hizkuntza arloko egitura konplexuak ditu.

2.3. Irakaslearen azalpenei aurrea hartzen die. Gauza batzuk azalpenik gabe ikasten ditu.

Lanari ia azalpen beharrik gabe egiten dio aurre. Batzuetan, irakasleak azalpenak eta oharrak ematen dituenean, arretarik jarri gabe egoten da, pazientziarik gabe egoten da edo azalpena amaitu aurretik ekiten dio lanari.

2.4. Bere lanak autonomiaz egiten ditu, eta ia ez du irakaslearen laguntza behar.

Eskatutako lanak egiteko garaian, autonomia da eta gutxitan eskatzen ditu lanak egin ahal izateko azalpenak.

2.5. Gorroto ditu zeregin mekanikoak eta errepikakorrak.

Arreta jarri gabe, galduta, hiltun eta kexa-keinuarekin egoten da, eta inguruko objektuekin jolasean, materialean marrazkiak egiten eta abar aritzen da lan mekanikoak edo errepikakorrak egin behar direnean.

2.6. Abstrakzioak egiteko trebetasuna agertzen du .

Ideiak eskema edo mapa kontzeptual konplexuen arabera antolatzen ditu. Sinbolo-sistemak (informatika, musika, ikusizkoak, kodeak, hizkuntzak...) erraz ulertzen eta erabiltzen ditu.

2.7. Ikaskideei kontzeptuak azaltzeko gai da, eta nola ikasten duen konturatzen da.

Ikasgelan landutako ikaskuntzak beste ikaskide batzuei azaltzeko erraztasuna du. Bere azalpenak horiek entzuten dituztenentzat ulertzeko lagungarriak dira. Egokiak eta zuzenak dira. Batzuetan, trikimailuak ematen saiatzen da. Lanak egiteko garaian, ikaskideek batzuetan bere laguntza jaso nahi izaten dute.

3. SORMENARI ETA IRUDIMENARI LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- 3.1. Lehen Hezkuntzan hasitakoarekin jarraitzen du: jokoak, musika, diskurtsoak eta abar hasi, sortu edo egokitzen ditu, gurasoen edo irakaslearen eraginik gabe.

Jolas baten egitura erabiltzen eta bertsio berriak sortzen ditu. Musika-konposizioak, marrazkiak edo lan artistikoak egin ditzake, txistek edo iruzkin barregarriak asmatzen ditu bizitako egoeretara egokituta, IKTen, bideojokoen eta abarren bidez diseinatzen du...

- 3.2. Material arruntak erabiltzen ditu eguneroko arazoei sormenezko konponbideak emateko.

Egunero erabiltzen ditugun objektuak ohikoa ez den moduan erabiltzen ditu. Egunero erabiltzen ditugun objektuetarako era askotako erabilerak proposatzen ditu. Maketazioko edo ideiak modu grafikoan adierazteko lanetan, oinarritzko baliabideak modu dibergentean erabiltzen ditu.

- 3.3. Problema konplexuak planteatzen ditu, eta ezagutza handitzen saiatzen da galderen bidez.

Gai askoren inguruko jakin-mina. Galdera asko egiten du. Gauzen zergatiaren inguruko galderak egiten ditu (helduen antzeko interesak). Interesekoak izan daitezkeen eta ikasgelan landutako gaietan galdera ugari egiten eta hipotesiak azaltzen ditu. Irteerak egitean edo hitzaldietara, batzarretara eta abarretara joatean, landutako gaiari buruzko galderak eta iritziak partekatzen ditu.

- 3.4. Originaltasuna erakusten du ideia, metodo eta adierazpen artistikoak lotzean.

Bere lanek, koadernoek eta ikasgelan egindako aurkezpenek egitura eta antolaketa bereziak dituzte, adierazi nahi duen mezua jakinarazteko baliabide eta lengoaia ezberdinak gehituta.

- 3.5. Trebetasun handia agertzen du arazoen edo galderen aurrean ideia edo soluzio ugari sortzeko.

Ikasgelan azaldutako galderen, problemen edo dilemen aurrean, erantzuten saiatzeko ideien, aukeren eta hipotesien bolumen handia gara dezake.

- 3.6. Objektuak edo ideiak egokitu, hobetu edo aldatu ditzake.

- 3.7. Ezohiko erabilerak ematen dizkie objektu arruntei.

Eguneroko objektuetarako beste erabilera batzuk topatzen ditu (ikaskideei bururatuko ez litzaizkiekeenak). Ideia bereziak ditu. Egunero erabiltzen ditugun objektuei erabilera edo funtzio bat baino gehiago ematen die. Jolasetan, eguneroko objektuak manipulatzeko garaian, beste erabilera edo funtzionalitate batzuk ematen dizkie. Objektu bera erabilia, hainbat unetan beste jolas batzuk sor ditzake.

4. ESPARRU SOZIOEMOZIONALARI LOTUTAKO ADIERAZLEAK

4.1. Oso iritzi independenteak izan ohi ditu.

Konbentzitzeko zaila da ados ez dagoen zerbait egiteko eskatzen diotenean. Batzuetan, taldean egindako lanetan gatazkan sartzen da ados ez dagoen edo bere ustez desegokia edo okerrekoa den erabakia hartzen badu bere taldeak. Zerbaitetan jolas egiteko asmoa badu, batzuetan, nahiago izaten du bere jolasa egitea bakarrik bada ere, horren interesgarriak iruditzen ez zaizkion jolasetan parte hartu beharrean.

4.2. Oso sentikorra da porrotaren eta ulertu ezinaren aurrean.

Oker egotearekiko beldurra dela eta, jarduera konplexuago batzuk ekiditen ditu, nahiz eta horiek egiteko gai izan. Egindako lanean akatsen bat dagoela esanez gero, jarduera berriro egitearen aurka ager daiteke. Zuzenduz gero, hobeto edo beste era batera egiteko ez dela gai argudia dezake. Egiten bereziki ona ez den zerbait egin behar duenean, ekidin egiten ditu egoera horiek (are gehiago kirol-jarduerekin lotuta badaude).

4.3. Gainerakoek premiak hautemateko intuizio handia agertzen du.

Enpatikoa da, ingurukoek emozioak identifikatzen ditu (ikaskideak, irakasleak...) eta horren aurrean bere ekintza doitzeko gai da.

4.4. Zenbaitetan, jarrera hezigaitza eta erresistentzia ager ditzake ezarritako agintearen aurrean, eta arau eta konbentzio sozialak zalantzan jar ditzake.

Arauek zergatia izan behar dute. Bere ustez arrazoi hori zentzuzkoa ez bada, onartzeko eta errespetatzeko zailtasuna agertzen du. Hartutako erabaki batzuen zergatia azaltzeko eta argudiatzeko eta horrek zentzua izateko beharra sentitzen du. Bestela, keinu edo hitz bidez adieraz dezake ados ez dagoela.

4.5. Kritiko agertzen da bere buruarekin eta gainerakoekin. Oso kritikoa izan daiteke egoera jakin batzuetan (bidegabeak, okerrekoak, inkontsekuenteak) eta irakasle batzuekin.

Norbaitekin desados dagoenean, ez du hori ezkututzen. Keinuekin edo ahoz adierazten du. Oker dagoenean, bere buruarekin oso zorrotza izan daiteke.

4.6. Kezka eta sentikortasun berezia agertzen du arazo sozial, moral, etiko eta abarren aurrean.

Interesa, kezka edo konpromisoa agertzen du egoera hauen aurrean: txirotasuna, gosea, abusuak, indarkeria, desabantaila sozialean dauden kolektiboak, klima-aldaketa, haurtzaroari emandako babesak eta hezkuntza... Boluntariotzako jardueretan eta gai horiekin lotutako mobilizazioetan hartzen du parte.

4.7. Umore-sen fina eta landua du.

Zentzu bikoitzeko esamoldeak erabiltzen ditu. Bere umorea garatzeko, hitz-jokoak erabiltzen ditu. Umore ironikoa eta, batzuetan, bere parekoek ulertzen ez dutena izaten du.

5. MOTIBAZIOEI ETA INTERESEI LOTUTAKO ADIERAZLEAK

5.1. Nahiago du autonomiaz lan egin, eta laguntza gutxi behar du.

Ez du lanak egiteko garaian zailtasunik agertzen. Ondo egon daitezke planteamenduak, nahiz eta ebazpenean akatsak edo hutsegiteak topatu. Nahiago du lan autonomoa egin ikaskideekin taldean lan egin beharrean.

5.2. Eskola-curriculumetik kanpoko gaiak interesatzen zaizkio.

Era askotako esparruekiko interesa ager dezake (ekialdeko hizkuntzak, gizarte-gai esanguratsuak -ingurumena, justizia soziala-, robotikarekin eta teknologiarekin lotutako gai zientifikoak –fisika esaterako-, kultura eta artea).

5.3. Interes bizia agertzen du ikerketa intelektualeko arlo baten edo batzuen inguruan, eta emaitza bikainak lortzen ditu jakintzagai batzuetan.

5.4. Antzeko interesak eta ezagutzak dituzten pertsonetik harremanak bilatzen ditu.

Interesak eta komuneko zaletasunak oinarritzat hartuta aukeratzen ditu denbora partekatzeko lagunak eta ikaskideak. Ondoan dituen pertsonen dagokienez, aldakortasuna izan dezake eta/edo egonkortasunik ez izan erreferentziazko pertsonen edo lagunen dagokienez.

5.5. Ezagutza eta sakontasun handia ager dezake bere intereseko gaietan.

Intereseko gaietan edo zaletasunetan oinarritutako ahozko edo idatzizko erakusketetan, ezagutza maila sakona izan dezake. Intereseko gaietan, gaitasun handia adieraz dezake (musika, teknologia, arte, zientzia, literatura, kirol... arloetakoa).

5.6. Zereginak interesatzen zaizkionean, luzaroan eusten dio arretari eta kontzentrazioari.

Interesatzen zaizkion lanak egitean, edozein etenalditik aldenduta eta kontzentratuta agertzen da. Ez dio axola inguruan zarataren bat edo beste jardueraren bat badago. Kontzentrazioa mantentzen du. Baina jarduera lehendik ezagutzen duen zerbait gogoratzea edo azaltzea bada, aspertuta edo arreta gutxiagorekin egoten da. Jarduerak lehendik txertatutako prozedurak, eragiketak edo teknikak errepikatzea baldin badakar berekin, baliteke arreta ez jartzea eta lanak amaitu gabe uztea.

5.7. Nahiago ditu bere ahaleginaren emaitzen erantzukizun pertsonala hartzeko aukera ematen dioten egoerak.

Jardueretan erabateko kontrola izateko interesa du eta kalifikazioa eta ebaluazioa bere errendimenduaren (eta ez gainerakoen) mende egongo den jarduerak hobeto baloratzen ditu.

6. ERRENDIMENDU AKADEMIKOA

- 6.1. Eraitza bikainak lortzen ditu jakintzagairen batean eta/edo trebetasun bereziak ditu arloren batean (artistikoa, motorra eta abar).

Era berean, robotika eta teknologia arloetan ere lorpenak izan ditzake.

- 6.2. Alde handiak izan ditzake kalifikazio batzuetatik besteetara eta ebaluazio batzuetatik besteetara.

- 6.3. Aldakortasuna ager dezake eskola-errendimenduan eta kalifikazioetan, gaiaren, une emozionalaren eta abarren arabera.

- 6.4. Hainbat jardueratan nabarmentzen da: matematika-olinpiadak, gai zientifikoaren ingurukoak (fisika, kimika, biologia, geologia eta abar), xake-lehiaketak, musika eta abar.

Literatura-lehiaketak, sormen plastikokoak, teknologia-lehiaketak...

- 6.5. Eskola-errendimendu handia du.